

## Programaren datu orokorrak

|                       |                                                    |
|-----------------------|----------------------------------------------------|
| <b>Departamentua:</b> | 90 - ADINBERRI                                     |
| <b>Atala:</b>         | 9001 - ADINBERRI                                   |
| <b>Programa:</b>      | 010 - Adinberri Fundazioa                          |
| <b>Funtzionala:</b>   | 463 - Ikerketa zientifikoa, teknikoa eta aplikatua |

### Programa mota:

Finalista

### Misioa:

Gipuzkoaren berrikuntza-ahalmena maximizatzea zahartze osasungarriaren alde; kontuan hartuta interes talde nagusien egoerak eta premiak, eta arreta xede komun bat betetzera bideratuz, hau da, bizitza osasungarria luzatzera. Horretarako, hiru helburu hartu dira oinarritzat (Triple Win for Europe):

- Herritarren osasuna eta bizi kalitatea hobetzea, arreta berezia jarrita adineko pertsonetan;
- Asistentzia eta osasun sistemaren zaintza zerbitzuen bikaintasuna eta jasangarritasuna epe luzera lortzeko ahaleaginean laguntzea;
- Adineko pertsonen lotutako industriaren lehiakortasuna hobetzea, merkatuan hedatuko diren produktu eta zerbitzu berriak erabilia.

### Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

Herrialde garatuenetako biztanleriaren zahartze azkarra, gizartea konfiguratzeko, garapen ekonomikorako eta hazkunde jasangarriarako egungo paradigmak aldatzen ari da. Gipuzkoan, 55 urtetik gorako pertsonak (+55) 250.000 pertsona inguru izan ziren 2017an, 713.000 pertsonatik (%35). 2031rako, 55+-eko talde horren portzentajea %46,5 handituko da (343.495 pertsona). Populazio horren %27,1ek 65 urteren muga gaindituko du eta %5ek 80 urtekoa. Hala, 80 urtetik gorako pertsonak gaur egun 50.000 izatetik 2031n 70.000 izatera igaroko direla aurreikusten da. Ehun urtetik gorako pertsonen kasuan, biztanleria laukoiztu egingo litzateke.

Eustaten datuen arabera, 2020an, pandemiaren ondorioz (COVID-19), bizi-itzaropena pixka bat jaitsi da hiru lurralde historikoetan, 86,4 urtetan emakumeentzat eta 81,1 urtetan gizonentzat kokatuz. Hala ere, eta atzeraldi txiki hori gorabehera, Gipuzkoa, Euskadi bezala, munduko bizi-itzaropen handieneko herrialdeen artean dago, Japonia, Singapur edo Suitzarekin batera.

### Beharraren eboluzioa:

Adineko pertsona gehienek autonomia funtzionala eta harreman-autonomia izango dute zahartzaroan; hala ere, Gipuzkoaren zahartze progresiboaren ondorioz, mendekotasun graduren batekin baloratutako biztanleak 29.000 izatetik 36.000 izatera pasatuko dira 2031n. Aldaketa hori lehen mailako erronka da, bai laguntzaren ikuspegitik (zaintzen kalitatea hobetzea), bai ikuspegi sozialetik (egitura sozial eta ekonomikoak aldaketa demografikora eta zahartzearen erronkara egokitzea), bai ikuspegi ekonomikotik (aukera).

Bestalde, zenbait ikerketak erakutsi dutenez, Gipuzkoako adineko pertsonen %82k beren etxeetan zahartu nahi du, are gehiago, arreta eta zainketa behar handienak dituzten pertsonen %72ak ere bai. Horregatik, Adinberriren eta gainerako erakundearen erronken artean, etxeko arreta eta zainketa lehentasun bihurtzen dira.

### Nori zuzendua:

Gizartea, ADINBERRko ekimenaren azken hartzailea izanik:

- Aktiboa / hauskorra / menpekoa
- Zaintzaile eta profesionalak
- Komunitateak eta erabiltzaileen elkarteak

- > Osasun sistemaren agenteak
- > Hirugarren sektoreko agenteak
- > I + G + b agenteak
- > Agenteak / prestakuntza
- > Herri Administrazioak
- > Enpresak eta enpresen elkarteak

## Programaren estrategia.

### 1. Baliabideak (inputak):

- Pertsonala
- Informazio prozesuetarako ekipamendua.
- Bulego materiala
- Hornidurak
- Komunikazioak. (+ WEB)
- Profesionalek edo enpresa espezializatuak egindako lanak

### 2. Garatu beharreko

- Ezagutza, ikerketa eta esperimentazioa sorkuntza (pilotatzeak, entsegu klinikoak, etab.)
- Jakintza transferentzia, komunikazioa eta sozializazioa eta produktu eta zerbitzu berrien hedapena
- Enpresen hazkuntza eta garapenari laguntza
- Eskariaren sustapena

### 3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Balio-proposamena bere Talde Interesdunei (55 + eko taldea eta bere ingurunea, gizarte-osasun sistema eta ingurune ekonomikoa)

- Ekosistemen sorkuntza eta garapeneko ibilbideak,
- Prestakuntza ibilbideak.
- Berrikuntza ibilbideak.
- Produktuak eta zerbitzuak garatzeko ibilbideak.

### Programaren arau esparrua:

- 9/2016 LEGEA, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa.
- 3/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoa, eta hori garatzeko erregelamendua, 24/2008 Foru Dekretuaz, apirilaren 29koaz, onartutakoa
- 40/2015 Legea, urriaren 1koa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoa
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubidearen, martxoaren 27ko, 4/2007 Foru Araua


## 2020-2023 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO JARDUKETA, ENTITATEARENA

**Urteko helburua:** ADINBERRI bultzatzea, Gipuzkoako zahartze osasuntsu baten aldeko erreferentziazko estrategia berri gisa.


| Adierazlea                                                               | Neurri-unitatea | Azken balioa | 2021-eko Aurreikuspena | 2021-eko Errealia | Agintaldiko helburua |
|--------------------------------------------------------------------------|-----------------|--------------|------------------------|-------------------|----------------------|
| AdinBerritik lagundutako I+G+b Proiektu kopurua (Bottom up eta Top Down) | Kopurua         | 48,00        | 45,00                  | 61,00             | 85,00                |
| ADINBERRI erreferentziazko zentroa abiaraztea 2023an                     | Bai/Ez          | Ez           | Ez                     | Ez                | Bai                  |
| Estrategiaren funtsezko proiektuei lotutako eragileak. Datu metatuak     | Kopurua         | 0,00         | 70,00                  | 405,00            | 100,00               |

## Joera

AdinBerritik lagundutako I+G+b Proiektu kopurua (Bottom up eta Top Down) – Kopurua



Estrategiaren funtsezko proiektuei lotutako eragileak. Datu metatuak – Kopurua



## Memoria

2021eko ekitaldian, Berrikuntza Agenda Estrategikoan lehenetsitako 6 erronkei erantzuteko identifikatu diren proiektu eragileak sustatzen eta garatzen jarraitu da. Horietako bat izan da, Gizarte Politiketako Sailarekin, Eusko Jaurlaritzarekin, Osakidetzarekin eta lurraldeko 7 udalekin batera, Zaintza HerriLab Estrategia sustatzea, zaintzarako tokiko ekosistemen eredia. Horren helburua da etxera bideratutako ibilbide baten prototipoa egitea, arretaren etengabea, ahultasunetik mendekotasuneraino eta kasu konplexuraino.

Estrategia horren bidez, sistema koordinatu bat eratu nahi da zerbitzu publikoen, lehen eta bigarren mailakoen, gizarte-zerbitzuen eta osasun-zerbitzuen, zerbitzu komunitarioen eta zerbitzu pribatuaren artean, gaur egun dagoen zatiketa gainditu eta dauden baliabideak optimizatu ahal izateko. Horretarako, sistemaren erdian jarri behar da erabiltzailea, eta haiekin batera parte hartu.

ZHL estrategia berritzaile horrekin batera, eta Fundazioaren ibilbideetako bati erantzunez, hau da, prestakuntzari eta trebakuntzari, ADINPREST proiektua garatzen jarraitu dugu. Horren helburua zainketen sektorea profesionalizatzea eta kualifikatzea da, kalitatezko enplegua sustatzeko eta arreta- eta zainketa-zerbitzua hobetzeko. Guztiz bat dator Elkarrekin Lanean estrategiarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatzen duen bazterketa-arriskuan dagoen kolektiboarentzako enplegarritasun-estrategiarekin eta Eusko Jaurlaritzaren ZainLab proiektuarekin. Diseinatu den ibilbide profesionalaren kategoria bakoitzean eskatzen diren prestakuntza beharren eta gaitasunen diagnostikoan aurrera egin da. Hori guztia zuzenean inplikaturako eragileekin (Prestakuntza Zentroak, Egoitza Sektoreko enpresak, Etxez Etxeko Laguntza enpresak, Erakundeak, Lanbide eta IVAC) kontrastean. Ekitaldi honetan proiektua Proiektu Berezi gisa jaso da, Lanbideren eta Adinberri Fundazioaren arteko kofinantziazioaren bidez.

## Memoria

Ekitaldi honetan guztian HARIAK Estrategia lantzen jarraitu da. Estrategia hori GIPUZKOAK nahi ez diren bakardadeen aurrean duen estrategia da, bai Hasierako Talde Motorrarekin, bai hedatuarekin, non lurraldeko beste gizarte-eragile batzuk sartu baitira. Gainera, partaidetza prozesu bat egin da maiatzean, ekainean eta uztailan, lurraldeko 10 eskualdeekin, eta 400 pertsonak baino gehiagok eta Gipuzkoako 77 udalerri parte hartu dute. Aldez aurretik prestatutako oinarrien dokumentua ezagutarazi da eta ekarpen ugari jaso dira, estrategiaren esparru estrategikoa eraikitzea eraman dutenak.

Estrategia horren esparruan, Gipuzkoa Intergenerazionala proiektua sustatu eta garatzen ari da, nahi ez diren bakardadeen aurrean estrategian identifikatzen den lan-ildoetako bat. Proiektua Legazpiko udalerrian garatu da, Mondragon Unibertsitateko, ISEAKo, 5Lab, Adinberri, GFAko Estrategia Saileko eta udalerriko ikasleen laguntzarekin.

Silver Economyren erronkari dagokionez, adinekoen beharrei erantzuteko aukera ekonomiko gisa, 2021ean programa horren 3. fasea jarri da abian, hau da, Jarduketa Plana. Alde horretatik, hainbat zerbitzu eta tresna lantzen ari dira, aurreko fasean identifikatutako espezializazio-nitxoak indartzeko eta lurraldeko berrikuntza sozial eta/edo teknologikoko ekimenak ezagutarazteko, eskaintza eta eskaria lotu ahal izateko.

2021ean, ADINBERRI Laguntzen Deialdi berria argitaratu da. Horren onuradun izan dira 13 ekimen, bai zainketen arloan, bai Silver Economy-n. Ekitaldi honetan, Fundazioaren proiektuekiko akonpainamentua are handiagoa da, eta aurretik lankidetzat ildoa adostu eta itundu dira, deialdiaren oinarrietan ezarritako irizpideetako bati erantzunez. Ekimena eta barne-ekimena sustatzeari dagokionez, zenbait ekimenekin batera jardutea sustatzen jarraitzen dugu, azken erabiltzaileek eta esparruko profesionalek balioztatu eta aztertzeke. Oinarri teknologikoa dutenak BIC Gipuzkoarekin lanean jarraitu dute, eta osasunarekin lotura handiagoa duten beste batzuk SPRIrekin lan egin dute.

Adimen Aurreratuko Sistema (behatoki prospektiboa) garatzen jarraitu da, zahartzearekin lotutako erronkei aurre hartzeko gobernantza lortzeko. Gipuzkoan zahartze osasuntsuari buruzko INFORMAZIOA eta EZAGUTZA jasotzeko plataforma irekia. Eragile publiko eta pribatuei oinarri informatuak eskaintzea ahalbidetzen duten ETORKIZUNEN JOERAK eta AGERTOKIAK identifikatzeko tresna.

Adinberri aurrera egin du Adinberri Plataforma Bateratuaren garapenean, SIA, komunitate modulua eta modulu korporatiboa tresna bakar baten parte izan daitezkeen. Horrela, webguneak ADINBERRI sortzen ari den zerbitzu, proiektu eta ezagutza guztiak bilduko ditu, eta ekosistemako eragileek konektore eta katalizatzaile gisa erabiliko da.

ADINBERRI Erreferentzia Zentroari dagokionez, Fundazioak bere gain hartuko du proiektuaren lidergoa, eta, beraz, proiektu horretan parte hartzen duten eragile eta erakunde guztiak koordinatuko ditu, obra gauzatzeari eta zuzentzeari buruzko Pleguak ahalik eta azkarren argitaratzeko. Ahalegin handia da Fundazioarentzat; izan ere, zailtasun handiak daude kudeaketan, hainbat administrazio eta agintari inplikatzeko dituzten administrazio-prozesuetako zailtasunak direla eta. Idom-en aholkularitza teknikoa kontratatu da Fundazioari prozesu horretan laguntzeko.

## Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

### 1. Jarduketa ildoak:

ADINBERRIren jasangarritasuna hedatu, indartu eta bermatzea, zahartze osasuntsu baten aldeko estrategia gisa.



% 50,00



% 50,00

## Ordainketa kredituak

Hasierako  
aurrekontua

Gauzatzea Sarrera lotua Aurreratze  
gradua

|                                                                                                                                                                                                                                                                                | Hasierako aurrekontua | Gauzatzea           | Sarrera lotua | Aurreratze gradua |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------|---------------------|---------------|-------------------|
| <b>Jarduketa ildoak, guztira</b>                                                                                                                                                                                                                                               | <b>943.200,00</b>     | <b>1.163.339,76</b> |               |                   |
| <b>1.1 Ekintza</b><br>ADINBERRI ESTRATEGIA garatu eta aurrera eramatea, identifikatutako ERRONKA eta DESAFIO estrategikoei erantzuteko. (ondoren, Prospektiba-Behatokiaren Zaintza Sistemarekin kontrastatuko dira).                                                           | 171.012,01            | 112.508,57          |               | 98,00             |
| <b>1.2 Ekintza</b><br>GOBERNANTZA-EREDUAREN aurrerapena                                                                                                                                                                                                                        | 106.021,58            | 73.823,70           |               | 88,33             |
| <b>1.3 Ekintza</b><br>JASANGARRITASUNA                                                                                                                                                                                                                                         | 76.013,00             | 55.962,97           |               | 22,50             |
| <b>1.4 Ekintza</b><br>BALIO-PROPOSAMENA garatzea.                                                                                                                                                                                                                              | 30.727,87             | 26.446,26           |               | 80,00             |
| <b>1.5 Ekintza</b><br>ADINBERRI PLATAFORMA ezartzea: Web Korporatiboa, CRM eta Komunitate Birtuala                                                                                                                                                                             | 48.605,00             | 53.825,65           |               | 87,33             |
| <b>1.6 Ekintza</b><br>Tokiko, Estatuko eta nazioarteko SAREETAN parte hartzea eta kokatzea.                                                                                                                                                                                    | 27.606,01             | 24.585,03           |               | 82,00             |
| <b>1.7 Ekintza</b><br>ADINPREST proiektua garatzea (zainketen sektorea kualifikatzeko eta profesionalizatzeko programa, kalitateko enplegu inklusiboa sortzeko)                                                                                                                | 68.280,00             | 51.588,03           |               | 97,50             |
| <b>1.8 Ekintza</b><br>EZAGUTZAREN TRANSFERENTZIA.                                                                                                                                                                                                                              | 38.281,02             | 33.731,78           |               | 71,66             |
| <b>1.9 Ekintza</b><br>ADINBERRI BEHATOKI PROSPEKTIBOA garatu eta ezartzea: Zahartzearen arloko zaintza prospektibo-estrategikorako sistema, politika publikoak eta estrategia pribatuak birbideratzeko funtsezko erronkak, etorkizuneko egoerak eta jarduerak identifikatzeko. | 142.000,98            | 186.839,26          |               | 97,20             |
| <b>1.10 Ekintza</b><br>2021 ADINBERRI I+G+B PROGRAMARAKO LAGUNTZEN DEIALDIA                                                                                                                                                                                                    | 22.001,00             | 379.142,06          |               | 100,00            |
| <b>1.11 Ekintza</b><br>DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUEN jarraipena eta laguntza.                                                                                                                                                                                                   | 22.001,00             | 19.742,05           |               | 90,00             |

|                                                                                                                                               | Hasierako<br>aurrekontua | Gauzatzea | Sarrera lotua | Aurreratze<br>gradua |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------|-----------|---------------|----------------------|
| <b>1.12 Ekintza</b>                                                                                                                           |                          |           |               |                      |
| Aurrerapenen jarraipena egitea eta Pasaiaiko Erreferentzia Zentroan ezar daitezkeen aktiboak identifikatzea.                                  | 22.001,00                | 19.742,05 |               | 80,00                |
| <b>1.13 Ekintza</b>                                                                                                                           |                          |           |               |                      |
| Silver Economy Erronka lantegiaren 3. faseari ekitea: Silver Economy bultzatzeko jarduera-plana, 2. fasean zehaztutako esparru estrategikoan. | 84.335,98                | 62.708,28 |               | 95,00                |
| <b>1.14 Ekintza</b>                                                                                                                           |                          |           |               |                      |
| EKINTZAILETZA ETA BARNEKINTZAILETZA bultzatzea (proiektu berritzaileak BIC Gipuzkoaren eskutik)                                               | 84.313,55                | 62.694,07 |               | 70,00                |

## GENERO BERDINTASUNEKO PLANA

**Programaren genero garrantzia:** Handia

**Programak ukitzen duen kolektiboa:**

Adineko pertsonak

**Programak ukitutako gaitasuna(k):**

Zainketa egokiak jasotzea

**Beharraren eboluzioa:**

Horri ekiteko beharra dago oraindik. Zahartzearen esparrua, zalantzarik gabe, genero-ikuspegiaren arabera da, Gipuzkoako emakumeen bizi-itxaropenetik hasita. Itxaropena 87 urtekoa da, eta gizonen 81 urtekoa. Hala ere, ezintasunik gabeko bizitarako itxaropena txikiagoa da emakumeengan. Generoaz gain, beste faktore batzuk ere garrantzitsuak dira bizi-kalitatean, zahartu ahala: estatus soziala, hezkuntza-maila, bizi garen eremua/auzoa/eskualdea, estresa edo lan-baldintzak, besteak beste.

Zentzu horretan, "Bakardadeei aurre egiteko Gipuzkoako Estrategia" ere errealitate horri aurre egitera bideratuta dago nolabait; izan ere, datuen arabera, genero-ikuspegitik, adineko pertsonetan emakumeak dira bakardadea gehien pairatzen dutenak.

Emakumea izan da urte hauetan guztietan zaintzaile nagusia, baina lan-merkatura gehiago iristeak eta familia-egiturak aldatzeak zainketa-sistemaren paradigma aldatzea dakar. Gaur egun, postu hori pertsona migratzaileek betetzen dute, gehienak emakumeak eta baldintza eskasetan; beraz, zainketen arloan ezinbestekoa izango da gai horri heltzea. Adinprest proiektua errekonozimentua, profesionalizazioa eta zaintzaileen baldintza duinak lortzera bideratuta dago.

**Kuantifikazioa:** 5.438,75 ( % 0,47 )

| Kategoria                                                                                                                                        | Kategoria % | Nola                                                                                                                                                                                                                                                   | Aurreratze gradua | Esleitutako adierazlea |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------|------------------------|
| Go.HO.1.2. 2/2015 Foru Araua eta Euskadin indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea garatuta, konpromiso politikoa zehaztea. | ( % 50,00 ) | Go.1.2.3. 2/2015 Foru Arauarekin bat etorruta, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika sustatzeko eta garatzeko GFAk bereizten duen aurrekontua progresiboki egokitzea.                                                                        | 100,00            |                        |
| Ek.HO.12.2. Gipuzkoan txirotasunaren feminizazioa murrizten jarraitzea.                                                                          | ( % 50,00 ) | Ek.12.2.2. Elkar-rekin Lanean foru programaren esparruan, gizarte bazterketan bizi diren edo egoera horretan egoteko arriskua duten emakumeak gizarteratzeko bideak lantzea, kontuan izanik aurre egin beharreko generoko egiturazko desberdintasunak. | 100,00            |                        |

## HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

## Beharraren eboluzioa:

Euskararen erabilera bultzatzen jarraitu behar dugu zahartze osasungarriarekin zerikusia duten esparruetan, arreta berezia jarri zainketen arloan, eta eguneroko bizitzan autonomia babesteko laguntza behar duten erabiltzaile guztiei nahi duten hizkuntzan jaso ahal izatea bermatu behar diegu.

Hizkuntza berdintasuna, gure proiektu estrategiko guztietan kontuan hartzen den irizpidea izanik, estrategiaren helburu diren pertsona guztiei aukera hori bermatzea da gure helburua.

Bestalde, aurreikusia dugu, orain arteko Euskara Planaren diseinutik abiatuta, inplementazioan sakontzea 2022tik aurrera, bere eraginkortasuna gure ekosistema guztira zabaltzeko.

**Kuantifikazioa:** 3.128,89 ( % 0,27 )

| Kategoria                                                                                                                  | Kategoria % | Nola                                                                                                                                                                                                      | Aurreratze gradua |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------|
| 1.2. Marketina, publizitatea eta jendaurreko ekitaldiak                                                                    | ( % 25,00 ) | Komunikazio Planean hizkuntzen arteko erabilera orekatua bermatuko da                                                                                                                                     | 81,66             |
| 2.1. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko harreman idatzia zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan | ( % 25,00 ) | 2.1.2. Euskarazko eskaerari euskaraz emandako erantzunak                                                                                                                                                  | 80,00             |
|                                                                                                                            |             | Planaren partaidetza prozesuan (bilera, prentsaurreko, etb.) hizkuntzen erabilera orekatua bultzatuko da eta edozein kasutan hizkuntza eskubideak bermatuko dira. Dokumentu guztiak elebitan egongo dira. | 80,00             |
|                                                                                                                            |             | Bi hizkuntzen erabilera bultzatuko da, eta edozein kasutan, hizkuntza eskubideak bermatuko dira. Dokumentu guztiak euskara eta gaztelaraz egongo dira.                                                    | 80,00             |
|                                                                                                                            |             | Neurria: Euskarazko bertsioa eta bertsio elebiduna prestatzea zergadunentzako agirien eredu eguneratuetan. Tresna: Zerbitzuek ereduak aztertzea. Egiaztagarria: Zerbitzuek jarraipena eginez.             | 80,00             |
|                                                                                                                            |             | Datuen babeserako idatzitako euskarrien egokitzapena bi hizkuntzetan                                                                                                                                      | 80,00             |
| 2.2. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) eta herritarrekiko ahozko harremana zerbitzua eman edota produktua eskaintzeko orduan | ( % 25,00 ) | Herritar guztiei elkartarekin nahi duten hizkuntza ofizialean harremanak izateko aukera emango zaie.                                                                                                      | 90,00             |
| 5.2. Erakunde pribatuak: bezeroak (pertsona juridikoak), finantza-entitateak, produktu-eta zerbitzu- hornitzaileak, etab.  | ( % 25,00 ) | 5.2.1. Erakunde pribatuekiko idatzizko harremanak                                                                                                                                                         | 79,00             |



## Programari lotutako GJH zerrenda

| GJH                                                                              |                                                                                                                                                                              | Ordainketa kredituak | Datozen urteetako gastuak |
|----------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|---------------------------|
|  | <b>3-OSASUNA ETA ONGIZATEA</b><br>Guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.                                                    | 581.669,88           |                           |
|  | <b>9-INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA</b><br>Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusiboa eta jasangarria bultzatzea, eta berrikuntza sustatzea. | 581.669,88           |                           |
| <b>Guztira</b>                                                                   |                                                                                                                                                                              | <b>1.163.339,76</b>  |                           |

| PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA                                         |                                       |                        |                           |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------|------------------------|---------------------------|
| Gastuen kapituluak<br>Capítulos gastos                                                                              | Hasierako aurrekontua<br>Ppto Inicial | Gauzatzea<br>Ejecución | Gauzatze %<br>% Ejecución |
| 1. LANGILERIA GASTUAK/<br>GASTOS DE PERSONAL                                                                        | 288.445,00                            | 290.067,27             | 100,56                    |
| 2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN<br>GASTU ARRUNTAK/<br>GASTOS CORRIENTES EN<br>BIENES Y SERVICIOS                          | 503.755,00                            | 303.605,75             | 60,27                     |
| 3. FINANTZA GASTUAK/<br>GASTOS FINANCIEROS                                                                          |                                       |                        |                           |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/<br>TRANSFERENCIAS<br>CORRIENTES                                                         |                                       | 359.400,01             |                           |
| <b>Eragiketa arruntak, guztira<br/>Total operaciones corrientes</b>                                                 | <b>792.200,00</b>                     | <b>953.073,03</b>      | <b>120,31</b>             |
| 5. KONTINGENTZIETARAKO ETA<br>BESTE EZUSTEKO<br>BATZUETARAKO FUNTSA<br>FONDO DE CONTINGENCIA Y<br>OTROS IMPREVISTOS |                                       |                        |                           |
| 6. INBERTSIO ERREALAK/<br>INVERSIONES REALES                                                                        | 151.000,00                            | 210.264,01             | 139,25                    |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/<br>TRANSFERENCIAS DE CAPITAL                                                            |                                       |                        |                           |
| <b>Kapitaleko eragiketak, guztira<br/>Total operaciones de capital</b>                                              | <b>151.000,00</b>                     | <b>210.264,01</b>      | <b>139,25</b>             |
| 8. AKTIBO FINANTZARIOAK/<br>ACTIVOS FINANCIEROS                                                                     |                                       |                        |                           |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK/<br>PASIVOS FINANCIEROS                                                                     |                                       |                        |                           |
| <b>Finantza eragiketak, guztira<br/>Total operaciones financieras</b>                                               |                                       |                        |                           |
| <b>Guztira / Total</b>                                                                                              | <b>943.200,00</b>                     | <b>1.163.337,04</b>    | <b>123,34</b>             |

## PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA

| Planen zenbateko osoa, kapituluka<br>Total planes/capítulos                                                   | Ordainketa kredituak<br>Créditos de pago |                         | Konpromiso kredituak<br>Créditos compromiso |                         |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------|-------------------------|---------------------------------------------|-------------------------|
|                                                                                                               | Estrategikoa<br>Estratégico              | Operatiboa<br>Operativo | Estrategikoa<br>Estratégico                 | Operatiboa<br>Operativo |
| 1. LANGILERIA GASTUAK/<br>GASTOS DE PERSONAL                                                                  | 290.068,25                               |                         |                                             |                         |
| 2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/<br>GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS                          | 303.606,11                               |                         |                                             |                         |
| 3. FINANTZA GASTUAK/<br>GASTOS FINANCIEROS                                                                    |                                          |                         |                                             |                         |
| 4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/<br>TRANSFERENCIAS CORRIENTES                                                      | 359.400,01                               |                         |                                             |                         |
| <b>Eragiketa arruntak, guztira</b><br><b>Total operaciones corrientes</b>                                     | <b>953.074,37</b>                        |                         |                                             |                         |
| 5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO<br>BATZUETARAKO FUNTSA<br>FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS |                                          |                         |                                             |                         |
| 6. INBERTSIO ERREALAK/<br>INVERSIONES REALES                                                                  | 210.265,39                               |                         |                                             |                         |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/<br>TRANSFERENCIAS DE CAPITAL                                                      |                                          |                         |                                             |                         |
| <b>Kapitaleko eragiketak, guztira</b><br><b>Total operaciones de capital</b>                                  | <b>210.265,39</b>                        |                         |                                             |                         |
| 8. AKTIBO FINANTZARIOAK/<br>ACTIVOS FINANCIEROS                                                               |                                          |                         |                                             |                         |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK/<br>PASIVOS FINANCIEROS                                                               |                                          |                         |                                             |                         |
| <b>Finantza eragiketak, guztira</b><br><b>Total operaciones financieras</b>                                   |                                          |                         |                                             |                         |
| <b>Guztira / Total</b>                                                                                        | <b>1.163.339,76</b>                      |                         |                                             |                         |
| <b>Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %</b>                                                                | <b>123,34</b>                            |                         |                                             |                         |

| PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA    |                                          |                       |                           |                                          |
|--------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------|-----------------------|---------------------------|------------------------------------------|
| Sarreraren kapituluak<br>Capítulos de ingresos                                 | Hasierako<br>aurrekontua<br>Ppto Inicial | Gauzatze<br>Ejecución | Gauzatze %<br>% Ejecución | Gastuari lotutakoak<br>Afectados a gasto |
| 1. ZUZENEKO ZERGAK/<br>IMPUESTOS DIRECTOS                                      |                                          |                       |                           |                                          |
| 2. ZEHARKAKO ZERGAK/<br>IMPUESTOS INDIRECTOS                                   |                                          |                       |                           |                                          |
| 3. TASAK ETA BESTELAKO<br>SARRERAK/<br>TASAS Y OTROS INGRESOS                  |                                          |                       |                           |                                          |
| 4. TRANSFERENTZIA<br>ARRUNTAK/<br>TRANSFERENCIAS<br>CORRIENTES                 | 792.200,00                               | 943.673,02            | 119,12                    | 593.673,02                               |
| 5. ONDARE SARRERAK/<br>INGRESOS PATRIMONIALES                                  |                                          |                       |                           |                                          |
| <b>Eragiketa arruntak, guztira<br/>Total operaciones corrientes</b>            | <b>792.200,00</b>                        | <b>943.673,02</b>     | <b>119,12</b>             | <b>593.673,02</b>                        |
| 6. INBERTSIO ERREALAK<br>BESTERENTZEA/<br>ENAJENACION DE<br>INVERSIONES REALES |                                          |                       |                           |                                          |
| 7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/<br>TRANSFERENCIAS DE<br>CAPITAL                    | 151.000,00                               | 151.000,00            | 100,00                    |                                          |
| <b>Kapitaleko eragiketak, guztira<br/>Total operaciones de capital</b>         | <b>151.000,00</b>                        | <b>151.000,00</b>     | <b>100,00</b>             |                                          |
| 8. AKTIKO FINANTZARIOAK/<br>ACTIVOS FINANCIEROS                                |                                          |                       |                           |                                          |
| 9. PASIBO FINANTZARIOAK/<br>PASIVOS FINANCIEROS                                |                                          |                       |                           |                                          |
| <b>Finantza eragiketak, guztira<br/>Total operaciones financieras</b>          |                                          |                       |                           |                                          |
| <b>Guztira / Total</b>                                                         | <b>943.200,00</b>                        | <b>1.094.673,02</b>   | <b>116,06</b>             | <b>593.673,02</b>                        |